

Interreg VA Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Programaren Lehenengo Deialdia

Programaren Kudeaketa Agintaritzak 2015eko irailaren 10ean argitaratzen du Interreg VA Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Programaren ardatz guztiei irekitako proiektuen lehenengo deialdia, 2015eko azaroaren 10a arteko epemuga izango duena. Proiektu deialdi honetarako 71,2 milioi euroko EGEF laguntza dago (programaren guztizko aurrekontuaren %40, laguntza teknikoa salbu) ardatz nagusi bakoitzaren aurrekontuaren %60ko muga.

Deialdi horretara 122 proiektu aurkeztu dira eta EGEF laguntzaren kopurutik ia 152 milioi euro eskatu dituzte, alegia dagoen EGEF laguntzaren kopuru bikoitza. Proiektu bakoitzagatik eskatutako batz besteko EGEF laguntza 1.250.000 eurokoa da eta proiektu bakoitzeko 6 bazkide gutxigorabehera.

Aurkeztutako 122 proiektu horietatik 57 proiektuk Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileak dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen guztizko inbertsioa lankidetza proiektuetan 30 milioi eurokoa da; horrexegatik eskatu duten Eskualdeen Garapenerako Europako funtsen ekarpen globala 19 milioi eurokoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan eskatutako EGEF laguntzen zenbatekoa Kataluniako Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Autonomiaren antzekoa da. Bestalde, Aragoiko Autonomia Erkidegoa izan da EGEF laguntzen zenbateko handiena eskatu duena, 23 milioi euro. Frantziako eskualdeei dagokienez, Midi-Pyrénées eskualdea eta Akitaniako eskualdeak dira, eskaera gehien egin dituztenak, EGEF laguntzan 28 milioi euro eta 24 milioi euro.

Ardatzen klasifikapena kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileek honelaxe hartu dute parte:

1. Ardatz nagusian “*Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea*” 41 proiektu aurkeztu dira; horietatik 23 EAEko sustatzaileenak dira eta EGEF laguntzen 7,37 milioi euro eskatu dituzte.
2. Ardatz nagusian “*Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere*” 14 proiektu aurkeztu dira; horietatik 5 EAEko sustatzaileen parte hartzea dute eta 0,7 milioi euro eskatu dituzte.
3. Ardatz nagusian “*Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea*” guztira 45 proiektu aurkeztu badira, horietatik 18 proiektu sustatzaile euskaldunenak dira eta 8,16 milioi euroko laguntza eskatu dute.

4. Ardatz nagusian “*Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea*” 4 proiektuetatik 2 Euskal Autonomia Erkidegoko bazkideek aurkeztu dituzte eta 1,48 milioi euroko laguntza eskatu dute.
5. Ardatz nagusian “*Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea*” 18 proiektu aurkeztu dira eta horietatik erdiak Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileek eskatu dituzte eta 1,76 milioi euroko laguntza izan da.

Aurkeztu diren proiektu kopururik handiena 6c lehentasunezko inbertsioan 3. Ardatzeko 6. helburu espezifikoan “*Ondare naturalari eta kulturalari balioa ematea garapen jasangarriko ikuspegi bateratuen bidez*” izan da 39 proiektuekin; horiek ia 57 milioi euroko laguntza eskatu dute. Jarraian, 1b lehentasunezko inbertsioan, hots, 1. Ardatzeko helburu espezifikoan “*mugaren bi aldeetako lurraldeko eragileen arteko lankidetzaren indartzea I+D+I arloan*” eta 2. helburu espezifikoan “*Lankidetzari esker, Teknologia berritzaileak garatzen laguntzea baliabide naturalen arloan*” 36 proiektuekin; ia 37 milioi euro eskatu dituzte.